

egituretan eta gizarte sistemetan gizon eta emakumeen biziaren eta duintasunaren aurka doan guztia salatzen daualako; gizartean danok erabat txertatzea suspertzen daualako, zuzentasun, alkartasun eta maitasunezko mezu ebanjelikoaren eskakizun etiko lez. Pastoral jarduera da, gizon eta emakumeen kontzientzia aldatzen dauan Hitzaren bitartez beteten dana; danongan, batez be gazteengan, gizarte arazoan eta eta behartsuen eta oinazetan dagozanen aldeko justiziaren aldeko konpromisoaren eskakizun ebanjelikoaren inguruan arreta esnatzeko eta sentiberatasuna bizteko gizarte irakaskuntza eratzearen eta zabaltzearen bitartez; azken batean, gizabanakoen eta gizartearen bizitza gatxago egiten daben arazo zehatz ugari erantzuteko jarduera prestu eta eskuzabalararen bitartez. Holan, Hitzak argi egiten dau kontzientzian eta egintzek Hitza haragitu egiten dabe” (EDSaren azterketa eta irakaskuntzarako jarraibideak abadeen heziketan, 56).

4.- Sinistedun askok eta askok ez dau Doktrina Soziala ezagutzen. Eta guk, ezagutzen ete dogu? Egin geinke zerbait ezagutu ahal izateko? Gure eleizbarrutian badogu bitartekorik horretarako. Beharbada, gai honen haritik zerbait egin daikegu.

## OTOITZA

Guztion Aita Jaungoikoa, zoriontasun oso eta “betikoaren” nahia, heriotzaren gainetik garaile aterako dan zoriontasunaren nahia jarri dozu gizon eta emakumeen bihotzean.

Apal-apalik adierazoten deusugu zentzunez erabili gura dogula gure barruan dagoan indar hori, bitarteko zintzoakaz, eta guretzat eta ingurukoentzat onuragarriena dan bidetik gauzatu ahal izateko.



Borondate oneko gizon eta emakumeakaz bat eginda eskatzen deusugu, Jesus zure seme eta gure anaiaren, biziaren Jaunaren bitartez.

## GARIZUMA ALDIKO DOMEKETARAKO HOMILIETARAKO OHARRAK ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN HARITIK

### GARIZUMA ALDIKO 5. DOMEKA – 2017ko APIRILAK 2 JESUS, BIZIA DA

- **Ezekiel 37,12-14**

“Nik irekiko dodaz zuen hilobiak, nik urtenarazoko zaituet hilobitik, oi ene herri, eta Israelgo lurraldera eroango (...) jakingo dozue ni nazala Jauna. Neure espiritua ezarriko dot zuengan, bizi zaitezen...”.

- **Paulok Erromatarrei 8, 8-11**

... zuek ez zarie bizi grina horreen menpean, Espirituaren menpean baino, Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi da-eta. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badau, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan badago, barriz, gorputza pekatuagaitik hil egingo dan arren, Espirituak badau bizia, Jaungoikoaren salbamen-indarrari esker.



- **Joan 11, 1-45**

Gizon bat, Lazaro eritxona, gaixo egoan. Betaniakoa zan... Ahizta biek Jesusi albistea bialdu eutsen: Jauna! Zure adiskidea gaixo dago (...) Jesus iritsi zanean, dagoeneko lau egun eroiazan Lazarok hilobian... Martak esan eutsan: “Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zan hilko...”. “Biztuko da zure neba...”. Jesusek esan eutsan: “Neu naz biztuera era bizia; nigan sinisten dauana, hilda be, biziko da. Eta bizi dana, nigan sinisten badau, ez da betiko hilko. Sinisten al dozu hau?”. Martak erantzun eutsan: “Bai, Jauna, sinisten dot zeu zarala Mesias, Jaungoikoaren Semea, mundura etortekoa zana” (...) ozenki egin eban deiadar: “Lazaro, zatoz kanpora!”. Eta hildakoa hartzulotik irten zan. Esku-oinak oihal-zerrendaz loturik... “Askatu eizue eta itzi joaten” (...) Jesusek eginda ikusi ebenean, Maria ikustera joandako judu askok sinistu eban harengan.

1. Eleizeak Garizuma aldiko azken domeka honetan aurkezten deuskun Jaungoikoaren Hitzak Biziaz, Jaunak gure gainera isurtzen dauan eta eraldaketa dakarren Espiritu barriaz dihardu, nahiz eta gure inguruan heriotzaz, porrotaz, minaz, iluntasunaz... hitz egin. Bai erronka handia hain minduta dagoan mundu honetan etorkizuna itxaropenez beteta dagoala, osotasunean bizi behar dogula baieztatzea! Sinisten ete dogu hori? Jesusek Lazaroren arrebari egiten deutsan galdera barriro irakurri eta pentsatu: Ze erantzuten dogu guk? Bizi-emoile ete gara gure inguruan? Erantzun pertsonala emongo dogu eta, aldi berean, Eleiza lez, kristau alkarte lez erantzuten saiatuko gara.

Gotzainen Batzarraren "Jaungoiko biziaren lekuko" agirian esaten jakuna gogoratuko dogu: "Horregaitik, argi eta garbi esan gura dogu Eleizak, alkarteek, kristau familieek, fededun bakoitxak alkarrak lotuta, alkarregaz solidario izanda, salbamenaren iragarpenean, herrien, familien eta gizabanakoen bizitza zehatzean Erreinuaren aurkakoa danari aurre egiteko burrukan, Jaungoikoaren eta Kristoren lankide izanda bizi behar dogula. Ez dago inongo aurkakotasunik Kristautasunaren alderdi espiritual edo eskatologikoen eta harek errealidadea eraldatzeko dauan indarraren artean. Alderantziz, kristautasunaren alderdirik berezko eta erradikalena, gizon eta emakumeen bihotzaren barrutik, giza errealidade osoa eraldatzeko emoten deutsan gaitasuna da, mundu honetako bizitza itxaroten dogun bizitza barrira eten barik hurreratuz. Beste mundu bat maitatzea eta itxarotea ez da mundu honi jaramonik ez egitea. Itxarotea, etorkizuna orain aldira eroatea eta eraldatzen saiatzea da. Salbamenaren mundua onartzea, maitasunean eta senidetasunean hemen bizi eta egin izan dana onartzea da, itxuraldatuz (GS, 39)". (Jaungoiko biziaren lekuko, 56).

2.- Ze zeinu eraldatzaile, biziaren ze zeinu dago gure munduan? Jesusek azaltzen eta transmititzen deuskun Bizi Barriaren aurrerapen lez ikusten doguz? Horreek gauzatzeko bideak jarten doguz? Sakonean, geure burua, alkartasunaren, maitasun eta senidetasunezko hartu-emonen Jaungoikoaren, gizatasun osoko egitasmora lotzen gaituan Jaungoikoaren Bizian txertatuta ikustean datza.



Kurutziltzatuaren, berbiztuaren atzetik joanez bidea egin. Geure burua, besteak, izadia eta Jaungoikoa bera ulertzeko erak dakarren barritasunaren bidetik joan.

Honetaz jarduten dau Laudato Si' entziklikak: "Jainko Personak irauten daben hartu-emonak dira, eta mundua, jainko ereduaren arabera sortua, hartu-emonen bilbea da. Izakiek Jaungoikoagana jotzen dabe, eta era berean, izaki bizidun orok berezkoa dau beste gauza batera jotea, eta, ondorioz, unibersoan, sekretuan alkarrak lotuta dagozan eten bako harremanen egundoko kopurua dago. Honek, izaki desbardinaren artean dagozan konexino ugariak mirestera garoaz eta horregaz batera, geure osotasunerako giltza hartu-emon horreetan dagoala konturatzeraz. Gizon eta emakumea, hartu-emonari ekiten deusanean, bere baitatik atera eta Jaungoikoagaz, besteakaz eta izaki guztiakaz bat eginda bizitzen hasten danean, gehiago hazten da, heldutasun eta santutasun gehiago jadesten dau. Holan, bizitzan bere egiten dau Jaungoikoak sortzetik txertatu dauan bizitasun hirukoitzari hori. Dana dago konektatuta, eta horrek Hirutasunaren misteriotik sortzen dan alkartasun globalaren espiritualtasuna garatzeraz garoaz". (LS, 240).

3.- Zelan egin? Zelan bihurtu zeinu zehatz Bizi Barri hori? Zelan bizi zuzentasunetik eta zelan transmititu itxaropen hori? Beti ez da erraza. Aitatu dogu ezinbestekoa dala bereiztea, sasoiaren zantzuen aurrean adi egotea, bizitzan azaltzen diran zeinuez, gure munduan hazten diharduen Erreinuaren haziez jaubetzea. Beharbada aldaketa ezinezkoa dala pentsatuko dogu behin eta barriro, berandu dala irudituko jaku...



Eleizaren Doktrina Soziala tresna egokia da sakontzeko; bidelagun egokia da, laguntasuna, irakurketa sinisteduna egin eta konpromisoaren aurrean jarteko.

"Aurkeztutako balioen, oinarrien, argibideen koadroan, zera agertzen da: Ebanjelioaren argitan egindako Eleizaren gizarte egintza Jaungoikoaren Erreinuaren presentziaren zeinua dala munduan, Erreinu honen eskakizunak aldarrikatzen ditualako historian eta herrien bizitzan gizarte barriaren oinarri lez; jarreretan,